

Youtuberra izan nahi dut!

Zer da Youtuberra?

Youtube sare sozialean gai desberdinei buruzko bideoak igotzen dituzten pertsonak dira: bideo-jokoak, sukaldaritza, jostailuak, aktualitatea, telebistako saioak.... Youtuberrak gai jakin baten inguruan egin ditzake bideoak, edo gai desberdinak joratu.



Bideo bat egitekoan kontuan izan behar dira:

1- Erabakiak hartu: Gai bakar bat aukeratuko dut edo gai desberdinei buruz arituko naiz? Nire burua erakutsiko dut? Zein hizkuntzatan egingo dut? Zein estilo erabiliko dut: serioa ala informala?

2- Gidoia idatzi: Atal honetan pausoz pauso esango dudana idatziko dut. Nola kontatuko dut istorioa? Zenbat denbora iraungo du? Noiz eta nola?

3- Non grabatuko dut? Nire etxeko gela hautatuko dut? Nire gurasoak ados daude? Gogoratu datu pertsonalak ez emateaz, Beraz, zure edo zure familiari argazkiak badituzu, adibidez, gorde itzazu grabatzen hasi aurretik.

Bideoa kalean grabatzea aukeratzen baduzu zure etxetik urrun graba ezazu, parke batean, adibidez, edo beste leku publiko batean.

4- Bideoaren kalitatea: Argi berezirik erabiliko dut grabazioan (fokoa)? Rotuloak edo efektuak erabiliko ditut?

Behin hau guztia argi duzunean, azaldu zure proiektua guraso, tutore edo familiakoei, ziur hobetzeko ideiak emango dizkizutela.

gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus

youtuberra izan nahi dut!

youtuberra izatearen alde onak:

SORKUNTZA: Zure sorkuntza indartuko duzu. Esan bezala, bideo txukun bat egiteak lan handia dakar atzetik eta prozesuan zehar asko ikasiko duzu.

TALDEAN LANA EGIN: Gainera, zure guraso edo familiakoen laguntza baduzu, familian ekintzak egingo dituzue, batak besteengandik ikasiz.

youtuberra izatearen alde txarrak:

INTIMITATEA GALTZEA: Gaur egun ezagunak diren youtuber askok Saretik deskonektatu behar izan dute. Youtuberra izateak suposatzen du zure intimitatearen zati bat besteei erakustea; ondorioz, gerta daiteke kaletik joan eta norbaitek zu ezagutzea, naiz eta zuk ez ezagutu.

DEKAZIOA / BESTE GAUZA BATZUEI DENBORA KENDU BEHARRA: Argi izan behar dugu Sarean gure irudia erakustek ondorio batzuk ekar ditzakeela. Gainera, bideoa egiteak denbora asko eskatuko dizu eta beste ekintza batzuei kendu beharko diezu denbora hori: lagunekin egotea, jolastea, familiarekin egotea, anai-arrebekin....



Gazteak
ziber-
eskubideen
alde

gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus

**KULTURA
DIGITAL@** | erabilera ona
eta sorkuntza

kulturadigitala.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**ORAIN
GAZTEAK**

youtuberra izan nahi dut!

Adibideak:

Hona hemen gai desberdin batzuen inguruko youtuber batzuk:

GAI DESBERDINAK JORRATZEN DITUZTEN YOUTUBER BATZUK:

- JuditSiteEuskaraz
<https://www.youtube.com/channel/UCfclMJkyfZFSLLIBAkAgA>
- HolaJulen (gaztelaniaz) <https://www.youtube.com/HolaJulen>
- DespertaVlog. Iban García (euskarazko kanala)
<https://www.youtube.com/channel/UCJjM91r4QgwAUPj6GD2gmEg/>
- Aizea Gallagher
https://www.youtube.com/channel/UC9n33HGMUQOe6HF_KTvtSUQ
- Beñat Larruker @LarruSketch
https://www.youtube.com/channel/UCPYU_GUAUa_1zfeDD8pgAmA
- Aiora Probatxoa
<https://www.youtube.com/channel/UCG55k8XBvG1ZFLusRI84QKw>
- Nerea Alias <https://www.youtube.com/user/ezezita>

gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus

youtuberra izan nahi dut!

GAI ZEHATZ BATI BURUZKO BIDEOAK BAKARRIK EGITEN DITUZTEN YOUTUBERRAK:

- EUSKAL KARAOKEA: Gabi de la Maza.
<https://www.youtube.com/user/txatxangorria>
- FAMLIAN: MikelTube eta FamiliTube
https://www.youtube.com/channel/UCBxS7NaGh7_pEbv898gKvw
- TRIKITIXA: Jokin Trikitixa
<https://www.youtube.com/user/TRIKIPANDEROful>
- SUKALDARITZA: Cocina en familia
https://www.youtube.com/channel/UCBxS7NaGh7_pEbv898gKvw

Gehiago ezagutzen dituzu?



Gazteak
ziber-
eskubideen
alde

gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus

KULTURA
DIGITAL@ | erabilera ona
eta sorkuntza

kulturadigitala.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GAZTEAK